

Enpresa eta erakunde onuradunak

■ Erakunde kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren arabera (2015eko otsailaren 2an argitaratu zen), bitartekotza-zerbitzua ematerakoan jarduera hauek gauzatzeko baimena dutenak, enplegu-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeari dagokionez esklusiboki.
- Hurrengo erakunde hauek izendatu ahalko dira zentro laguntzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badaude:



- ▶ Unibertsitateak.
- ▶ Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
- ▶ Lanbide-Euskal Enplegu erakunde laguntzaileak, 2016ko deialdiari dagozkion lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
- ▶ Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

**** Erakunde bakoitzeko gehienez 3 lagun izendatuko dira funtzio horiek egiteko.**

*** Ezinbestekoa izango da Lanbidek emandako prestakuntza saioetara joatea eta bertan ikasitakoa baliatzea. 2014, 2015 eta 2016ko deialdietan baimena jaso zuten zentro laguntzaileentzat izan ezik, baldin eta eskaintzak bilatzeko eta erregistratzeko jarduerak egiteko baimena jaso zuten pertsona berberak badituzte.**

Diruz lagun daitezkeen ekintzak


Enplegu-eskaintzak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea, azkenean deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatzen badira.

Epeak

1. Eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko zentro laguntzailea izateko eskatzeko: EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik 2017ko irailaren 15era.
2. Enplegu-eskaintza bildu, erregistratu eta kudeatzeko, 2017ko abenduaren 10a arte (diruz lagundutako kontratua formalizatzeko azken eguna).
3. Dagokion diru-laguntza eskaera: 2018ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28a arte.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Eskaintza biltzea eta erregistratzea	120 euro
Eskaintza kudeatzea	80 euro



► Zenbatekoak %10 handituko dira formalizatutako eta diruz lagundutako 20 kontratuko.

Diru-laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakarra, laguntza emateko ebazpena eman ondoren.